



Xabier
Peña
Albizu

1914-1980

BIDeGILEAK

Egilea:

Elixabete Garmendia



XABIER PEÑA ALBIZU

(1914-1980)

Eusko

pizkundearen semea

Bilboko gerra osteko euskal giroa aipatu, eta berehala aterako da Xabier Peñaren izena, batez ere euskarako ikasle izan zituen haien ahotik. Mila ikasletik gora igaro ziren bere eskuetatik 1949 eta 1980 bitartean, zuzenean nahiz berak antolatutako gau-eskoletan. Hori izan zen bere lan erraldoia, hutsetik eta isilean hasitako mugimendua. Ez zen, ordea, nagusiei euskara irakastera mugatu, euskal unibertsoaren beste atal batzuei ere heldu zien. Bilboko lehen ikastolaren sorrera bultzatu zuen 1957an, San Nikolas ikastolarena. Eta 60ko hamarkadan

euskarazko irratsaioak zuzendu zituen Herri Irratian. Euskararen zabalkundea izan zen bere bizitzaren ardatza, eskue-
ran zituen baliabide guztiak hartara jarritz. Horregatik, bere biografia Bilboko euskalgintzaren kronikarekin nahasten da 50-60-70 hamarkadetan zehar.

Bilbora heldu zenerako, ordea, gizon heldua zen, eta atzean bazeraman beste bizitza puska bat ere, 1936ko gerrak markatua. Bidelagun, anaia zaharrena, Xebe Peña mendizale ezaguna. Batak euskara baldin bazuen ardatz, besteak mendia, eta biek ala biek ere bidaietarako, baz-


terrak eta jendea ezagutzeko zaletasuna partekatzen zuten. Tolosarrak sortzez, han-hemenka ibili arren, atseginez nahiz behartuta, beti itzuliko ziren jaioterrira. Han bilatu behar dira Xabier Peña euskaltzalearen bizitzako giltzak.

TOLOSA, PIZKUNDEAREN ISPILU

Xabier jaio zenerako (1914-VI-30) Peña Albizutarrenean baziren beste hiru seme-alaba: Xebe, Joxe eta M. Jesus. Gero, Izaskun etorri zen, gazteena. Santa Klarako 9garren zenbakian bizi da Izaskun, hiru senide gazteenak jaio ziren etxe berean, Nafarroako zubia aurrez aurre eta Klaratarren komentua alboan.

Ama, Faustina Albizu, zarauztarra. Gainerakoan, Tolosaldean daude Peñatarren sustraiak. Aita, Klemente, Gaztelukoa jaiotzaz, Larraulen hazi zuten, zazpi hilabete zituela hil baitzitzaion ama. Aitona, Pedro Jose Peña, Orexakoa sortzez eta maisua.

Bi lanbide nagusi ageri dira familian. Batetik kimikarekin zerikusia duena,



Izaskun Peña Albizu



Leaburun, 1921 aldera, guraso eta senideekin



Eusko Ikaskuntzako bilera Donibane Lohizunen, 1933an



Oria ibaia eta barrenean Uzturre, Nafarroako zubitik. Tartean Tolosako Alde Zaharra

bestetik, irakaskuntza. Osaba batek, Blas Peña Goienetxea, Bilboko Inge-niari Eskolako laborategian lan egiten zuen, aitak bazituen komixioak pintura kontuekin, eta anaia Joxeri denda bat

jarri zioten Korreo kalean, margoak-eta egiteko. 1953ko uholdeek dena txikitu eta harrez gero enmarkazio denda bihurtu zen. Bertan lan egiten zuen M. Jesussek ere.



Tolosako ikastetxean, 1921-1922 ikasturtean

Aitona maisuaren bidea hartu zuten bi gazteenek. Izaskunek merkataritza ikasketak burutu eta kontabilitateko eta batxilerreko klaseak emateari ekin zion 1937an. Aurretik, Xabierrek irakasle ikasketak egin zituen Iruñean, eta segidan, beka bati esker, Belgikara joan zen urtebetez, Lovainara, soziologia ikastera. Hamazazpi urte besterik ez zeuzkan. Handik itzultzean, irakaskuntzari heldu zion, Tolosako Eskolapioetan lehendabizi, Zumaiako Maristetan gero. Etxean bazuten letretarako joera. Aita, Klemente, *El Pueblo Vasco* egunkariko berriemailea zen.

Tolosa, gerra aurre hartan, herri aurreratu eta bizia zen oso. Gipuzkoako hiriburu izandakoa, ez zen atzera begira geratu, eta inguruko herri ugarietako hiriburu izaten segitu zuen, merkataritza sendoarekin eta aberastasuna ekarri zion industriarekin, batez ere papergintzakoa.

Oinarri horren gainean, bizitza kultural eta politiko oparoa garatu zen herrian, bereziki euskaltzaletasunaren eta aberztzaletasunaren aldetik, Euskal Pizkundea bete-betean. Izen batzuk aipatzearren, hor aurkituko ditugu Ixaka Lopez Men-



Maristetako ikasleekin, Zumaian

dizabal, *Xabiartxoren* egilea, Eusko Alderdi Jeltzaleko lehen afiliatu tolosarra; Jose Eizagirre eta Juan Antonio Irazusta, biak diputatu Madrilen, eta euskal letretan arrastoa utzitakoak; Jesus Azkue abokatu; Jesus Elozegi argazkilaria, gerora Aranzadi Zientzia Elkartea sortuko zuena; Doroteo Ziaurriz sendagilea, Euzkadi Buru Batzarraren lehendakaria gerra hasi zenean. Apaizen artean, Pio Montoia alegitarra eta Aitzol. Lizardi zauruarrak Tolosan egiten zuen lana, eta Antonio Maria Labaien antzerki idazlea

herriko alkate zen gerra lehertu zenean. Tolosak erakarri egiten zituen abertzale euskaltzaleak: Telesforo Monzon bertan ibili zen euskara ikasten eta Jose Antonio Agirre, auzoko Altzon, Luis Jauregi *Jautarkol* apaiz zegoen herrian. 1931n, Tolosan ospatu zen bigarren Eusko Olerti Eguna, Emeterio Arreseren omenez, eta hor Lizardiren «Baso-itza!» poemak eraman zuen saria.

Horrela bada, ez da harritzekoa Tolosan sortu izana lehenengoetariko ikasto-



Jose Antonio Agirre lehendakariarekin



1930ean, Iruñean irakasle ikasketak egin zituen garaian



Lovaina, 1934

la, 1922an, eta zortziren bat urte geroago, bigarrena; guztira berrehun ikasletik gora zeuzkaten 1936an itxi behar izan zituztenean. Antonio M. Labaien arduratzen zen diru kontuez, eta hor azalduko zaigu Xebe Peña gaztea, Labaienen aginduz ikastolako bazkide zirenei kuotak kobratzen.

Alderdi sozialean ere aberatsa zen herria. 1926an sortu zen mendigoizaleen elkartea, eta urtebetera 200 bazkide zituen, Xebe Peña horien artean, eta Xabier ere ez zen urruti ibiliko. Tolosa, zinez, toki interesgarria zen. Ez zuen, ordea, asko iraun aldeko haizeak.



Tolosako Aberri Etxea, 1934



Hiru anaiak, Joxe, Xebe eta Xabier, Tarbesen 1940an

IHESI

«Erreketeak Nafarroatik sartu ziren eta alde egin behar izan genuen hiru anaiok. Zumaian hilabete egon ginen eta gero Bilbora alde egin genuen, izeba baten etxera.» Xebe Peñak kontatua, *Argia* astekariak 1992an argitaraturiko elkarrizketa batean. Hiru anaiak, Xebe, Joxe eta Xabier, ihesean. Joxe frentean gudaribili zen, preso hartu eta Bilboko Eskolapioetan eduki zuten. Xebe berriz Heliodoro de la Torre, Ogasuneko kontseilariarekin ibili zen hasieran, eta Tolo-

satik ezaguna zuen Telesforo Monzonekin gero, beti ere Bilbon. «Handik Santanderrera joan ginen, eta bertatik Baionara. Hamabi pertsona atera ginen itsasontzi batean ezkutaturik. Haien artean, Segundo Olaeta.»

1937an Saran topo egin zuten Labaiendarrek eta Xebe eta Xabier Peñak. Labaiendarrak apirilaren 1ean iritsi ziren Sarara, Ziburutik; Prefetenea etxean jarri ziren hasieran, hurrena Bidartera aldatu ziren, Sansineneatarren etxera, gero don Jose Migel Barandiaran bizi izango zenera. Ramon Labaienek, mutikoa artean, gogoan dauka nola Lehenbizkai auzoko



Bazet, Tarbes, 1942. Xabier, taldearen erdi-erdian

Tellerian bizi ziren Xebe eta Xabier, Bilboko lehengusina batekin, Elvira Peñarekin. «Hutsik zegoen baserria, mixeria gorrian. Lurrean lo egin behar izaten zuten; tomate kaxekin antolatu zituzten mahaia eta aulkiak. Untxiak jarri zituzten, izurritea sartu eta denak galdu.» Labaiendarren txerria ere Tellerian hazten zutela gogoratzen du Ramonek. Izaskunek dio Xabier baserriko lanetan aritzen zela, eta Xebe berriz apretak egiten ikasten ibili zela.

Saran, hasieran, ez omen zuten harrera ona izan gerratik ihesi zihoazenek. Ibarnegarai diputatuaren eraginpean zeuden bertakoak. Gero, ikusi zutenean zer-nolako jendea zen Hegoaldetik joandakoa, harreman onak egitera iritsi ziren. Bizibidea ateratzea, ordea, ez zen erraza. «Exiliatuen artean bazeuden aberatsak eta pobreak. Lehengo egitura sozial berbera aldatu zen exiliora», azpimarratzen du Ramon Labaienek.

Kontua da, Frantziako agintariek gerrako industriarako eskulana eskatu zutenean, Jaurlaritzak Tarbesera bideratu zituela aterpetu asko, eta horien artean joan ziren Xabier eta Xebe Peña. 1940an 818 aterpe-



Saran, gerratik ihesi

tu zeuden lanean Tarbes inguruan, Gregorio Arrien eta Iñaki Goioanak *Emigración a América y colocación obrera en Francia* liburuan jasotzen dutenez. Bizibaldintzak, hala-holakoak. 260 lanordu hilabetean, ostaturik merkeena ere garesti... Baina bazetorren oraindik handiagoa, gerratik gerrara, alemaniarrek sartu ziren Frantzian. Xebe mugalari gisa ibili zen: «Alemaniarrek sartu zirenean ere askotan pasatu nintzen Hegoaldera, jendea ekartzen eta eramaten». Geroago, 1943an, hegoalderago jo zuten Xebek eta Xabierrek, Madrilerara. Joxe, 1947an itzuli zen Hendaiatik Tolosara. Aita hilda zuten ordurako, hiru seme exiliatuen atsekabearekin.

ISIL-ISILIK

«Isil-isilik» azpimarratzen du Izaskunek joan zirela Xabier eta Xebe Madrilerara, Tolosako Garaialdetarrek eskainitako «Gerrako aseguru» lanetan aritzera. Hiru urte eman zituzten bertan. Oroitzen da Izaskun nola Xabier, behin behintzat, bizikletaz etorri zen Madrildik Tolosara. Batek daki, bidaiaren plazerrak edo beharrak eraginda. «Isil-isilik» Euskal Herritik urrutira joanda ekidin zuten nonbait zigortuak izatea. Eta horrela, hiru urteko tartea utzita, Madrillgo nagusiek lana bilatu eta 1946an Bilbora etorri ziren, Soroatarren «Seguros Bilbao»n enplegatuta. Xabier zuzendariaren idaz-



Madriren, senitartekoeekin, 1944an



Lagunekin, 1946an, Madriren

karia izan zen bertan. Poliki-poliki bizitza berregiten hasi ziren, bakoitza bere bidean, Xebe mendiarri lotuta, Xabier euskarari.

Urteen buruan, Bilbon, Pérez Galdos kallean erosi zuten etxea. Bazkaldu, egunero, Guria jatetxean, Zazpi Kaletan, artean

Genaro Pildain sukaldariaren ama zela etxeoandrea. «Etxekoak bezala» omen ziren bertan.

Bilbon hasi eta bukatu, egin zuen Xebek 1953ko maiatzean «Lau Katedralen ibilaldia», euskal mendizaletasunaren historian idatzita geratu dena. Hillary eta Tensingek Everesteko gailurra maiatzaren 29an jo bazuten, aurreko lau egunetan, maiatzaren 25etik 28ra bitartean, Xebek Bilbo, Donostia, Iruñea eta Gasteizko katedralak lotuz, 400 kilometroko ibilia osatu zuen, guztira 7.407 metroko igoera metatuz. Hori 67 ordu eta 43 minutuan, lotarako soilik sei ordu hartuta. Xeberen balentria azkar honekin alderatzen jarrita, Xabier ordurako euskararen aldeko iraupen luzeko lasterketan zebilela esan daiteke.

«Xabier Peña 1949. urtean ezagutu nuen» dio Xabier Gereñok Peña hil zenean *Euskera* aldizkarian argitaratutako idatzian. «Garai hartan euskal ikasleen artean EIA izeneko elkarte klandestino bat zegoen [...], Euskal Ikasle Elkartasuna zen eta bere partaide bezala Luis Mari Retolaza, Josu Arenaza eta beste hainbat [...]. EIA hark bi adar zituen, bata kulturala eta bes-

tea politikoa. Ni eta Xabier Peña adar kulturalen geunden.»

Urte horretan, 1949an, hasi zen Xabier Peña euskarako klaseak ematen Bilbon, eta hil zen arte iraun zuen horretan. Hiru hamarkadatan zehar, erromes modura joan ziren Peñaren klaseak egoitza batetik bestera: Concha jeneralaren kalean hasi, Ibañez de Bilbaon jarraitu, hurrena Erribera kaleko 6.ean —Euskaltzaindiaren egoitzan—, Gran Vían ere bai, Tere Rotaxeren gizonaren etxean, eta azkenik, Elkano kaleko 6.ean, Azkue ikastetxean.

Eusebio Erkiaga idazle lekeitiarra eta Alfontso Irigoien euskaltzaina ere ibili ziren



«Seguros Bilbao»ren egoitza, Carlton hotelaren atzean



1949an hasi zen euskarako klaseak ematen Bilbon



Erribera kaleko 6.ean, Euskaltzaindiaren lehengo egoitza



irakasle aldi batzuetan, baina gau-eskolak antolatu eta emateari jarraian eutsi ziona Xabier Peña izan zen.

Hasi eta laster, ordea, lan askotxo bera-
rentzat bakarrik, eta asmatu zuen hazkun-
dea ez zapuzteko sistema: ikasle aurre-
ratuak irakasle bihurtzen zituen. Hau da
Jaime Guenaga eta Emille Garairen ka-
sua. Bilbotarrak, euskal hiztunak fami-
liatik, alfabetatu eta berehala jarri zituen
Xabierrek irakasten. Emille 1966an hasi
zen klaseak ematen lehen mailakoei; bi-



Ikasle aurreratuak irakasle bihurtzen zituen.
Hauek Jaime Guenagaren ikasleak dira

garrengoan irakaslea Jaime Guenaga zen,
eta hirugarrengoena Xabier.

Multikopistaz ateratako apunte eta arike-
tekin moldatzen ziren hasieran eta ho-
rietan oinarriturik, *Euskal-Irakasbide La-
burra* liburutxoa osatu eta argitaratu zuen
Peñak 1958an.

Euskalkien aldekoa zen Xabier, eta Bil-
bon bizkaiera irakasten zuen. Irakatsi eta
ikasi. Pili Ziarrustak, ikasle-irakasle haie-
takoa hau ere, gogoan du nola etxetik ze-
karren Arratiako euskalkian esaera be-
reziren bat entzuten zionean, Xabierrek
kontuan hartzen zuen, eta gorde.

Euskararen alde egiten ari zen lan eskerga
kontuan hartuta, euskaltzain urgazle izen-
datu zuten 1960ko urtarrilaren 29an.



Trabakua, 1945. Ondoan, Joxe Mari Aranzabal lagunarekin



Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1960an



Sare trinkoaren egilea

Bizi guztian eutsi zion mendizaletasunari

EUSKAL HERRIA EZAGUTARAZTEN

Neguan gramatikako lezioak lantzen zizuten batik bat, eta udan berriz irakurketak, Orixe, Lizardi, Txomin Agirre... Eta udan, gainera, irtenaldiak egiten zituzten inguruetara, talde txikitan. Izan ere, Xabier Peñaren eskolak ez ziren hizkuntza irakastera mugatzen. Bazterrak eta jendea ezagutu zalea izanik, ikasleei ere jakin-min eta ezagutza hori transmititzen zien. Horrela, ikasturtea amaitzeko txangoa prestatzen zuen urtero. Eta nola prestatu, egun beteko egitaraua, zehatz-mehatz, irakasle eta ikasle guztiei banatzen zien paperean. Adibidez, 1971ko maiatzaren 30ean egindako txangoa, Gi-

puzkoaren bihotzera. Goizeko 7etan irten Bilbotik eta gaueko 10etan iritsi bueltan. Tartean, bi aukera: mendia egin nahi zutenentzat, Erniora igoera; besteentzat, Zarautz eta Lasartera bisita. Bazkaltzeko bilduko ziren batzuk eta besteak Urkizun, eta itzuleran Bidanian eta Eibarrren geldialdiak. Egitaraua bi ibilaldien krokis eta guzti hornitua ageri da. Eta horrela urtez urte, jende andana mugituz. 1976ko maiatzaren 30ean, 111 lagun bildu ziren Lekunberriko Aiestaran hotelean bazkaltzera, batzuk Leitza aldean ibili eta besteak San Migelera igo eta gero. Hiru urte geroago 148 bazkaltiar ziren, txistulari eta guzti, Opakua gainera Lizarra aldera egin zuten txangoan.



Diman, don Jose Migel Barandiaranekin

Xabierrek, xehetasun osoz eramaten zituen kontuak, ibilbidearenak ez ezik, jendearenak eta diruarenak ere bai.

«Euskal Herria horrela ezagutu genuen» dio M. Angeles Garaik. Izan ere, urtez urte ibilbide berri bat prestatzen zuen Peñak, Euskal Herria aldenik alde hartuta. 1973an Arabako Errioxan izan ziren eta bost urte geroago Lapurdin, Ainhoa, Sara eta Senpere bisitatuz. Zuberoara pastoralak ikustera joan ohi ziren, eta mendira, nola ez, Gorbeia, Aralar, Aizkorri eta Urbasara. Arraten, Donostialdeko beste ikasle batzuekin bildu ziren urteren batean.



Urbasa, 1966. Igeldo, 1972

Bada pasadizo bat Peñaren zehaztasuna, lekuen ezagutza eta euskalkiena batzen dituen. Ikasleek gogoratzen dute nola tokian tokiko euskara egiten saiatzen zen, eta horrela, Bizkaitik Gipuzkoara igarotzean, bizkaieraz berba egiteari utzi eta gipuzkeraz hitz egiten hasten zen.

880 ikasleren izenak dauzka zerrendatuta Xabier Peñak agenda batean. 880 ikasle, izen-abizenekin. 1974an aitortzen zuen,



San Nikolas ikastolako haurrak, goian.
Eskuinean Agurtzane Alberdi andereñoarekin

milaren bat ikasle pasatuko zirela bere eskuetatik ordurako. «Euskera irakasten» izeneko idatzian (1977) dio, hasierako garaiak gogoan: «... orduko sei-zortzi ikasle aiek, orra orain millaka eta millaka biurtu, bai ume bai nagusi...». Izan ere, haurren eskolatzean ere izan zuen zerikusirik Peñak.

BILBOKO LEHEN IKASTOLA

1956an Parisen ospatu zen Munduko Euskal Biltzarrean izan zen Xabier Peña. Biltzarrak arreta berezia jarri zion irakas-kuntzari, eta ordurako han-hemenka zebilen kezkarri haize eman zion: euskarazko irakaskuntza antolatu beharra zegoen haurrentzat. Xabier Peñak bere ikasle bat



eraman zuen Parisera, M. Angeles Garai, bilbotarra, ama-hizkuntza euskara zuena, alfabetatua, irakasletzako ikasketak egina eta klase partikularrak ematen zebilena. Biltzarrean, Elbira Zipitriarekin eta haren jarraitzaile zen Karmele Esnalekin egon ziren. Zipitriak, ordurako, gerra osteko lehen ikastola antolatua zuen Donostian. Horixe zen Peñak Bilborako nahi zuena. Gurasoak bildu, lokalak bilatu, eta andereñoatarako, M. Angeles Garai zeukan begiz jota. Hortaz, hurrengo urtean, Zipitriarenean zen Garai praktikak egiten, hilabete

besterik ez, gainerako guztia prest baitzegoen. Eta horrela, 1957ko urriaren 9an ireki zen Bilbon gerra osteko lehen ikastola izango zena, San Nikolas elizako katekesi gelan, hamahiru ikaslerekin. Hilabete bazueta, urtarrilean, beste haur talde bat hasiko zela eta bigarren andereñoa bilatu zuten, Agurtzane Alberdi, hau ere Xabier Peñaren ikaslea. Hortik aurrera Peñak ikastolari lotuta jarraitu zuen, udalekuen antolaketan, andereño gaiak alfabetatzen, eta geroago, Lauro ikastola sortu zenean, bazkide izan zen. Peñak, bere klaseak zituen ardatz, baina ikuspegi zabalagoaren jabe, euskal unibertsoa osatu behar zuten beste arlo batzuk ere aintzat hartu eta bultzatzen zituen. Bere sinesmenarekin bat, Bilboko elizetan euskara sar zedin lan egin zuen. Eskolapioetan ba omen zuen lagun bat, eta hark meza euskaraz emango zuela jakiten zuenean, ikasleei abisu ematen zien, baina Xabier Gereñok gehiago ere kontatzen du: «Bilbon, urte ilun haietan, andre talde bikain bat zegoen: Kontxa Azaola, Tere Rotaetxe, Julia Andia, Asun Kandina eta abar. Urte arriskugarriak ziren, eta euskarazko elizkizun bat Bilbon egiteak bazituen bere problemak. Xabier

Peñak talde honekin lan egin zuen, euskara Bilboko elizetara eramaten».

IRRATIAN SARBIDEA

Ikuspegi estrategiko horrek bultzatu bide zuen irratigintzari ere heltzera. Bilboko Herri Irratian «Baserri ordua» izeneko saioa jarri zuen martxan. Izenak adierazten duen bezala, nekazaritzako gaiak ziren nagusi, baina bestelako albiste laburrak ere ematen zituzten eta tarteka ikastolako haurrak gonbidatzen zituzten zerbait kantatu edo kontatzera. Zapatu arratsaldetan aireratzen zen. Hor ere, bere bi ikasle jarri zituen esatari: Jaime Guenaga eta Aurea



Bilboko Herri Irratikoekin, zaindariaren eguneko ospakizunean

Urrutia. Guenagak gordeta dauzka Peñak idatzitako gidoi guztiak, 1963ko azaroaren 29an hasi eta 1966ko abenduaren 30era bitartean. *Gure Mendea* kronika liburuak jasotzen duenez, 1965ean, Herri Irratia Peñaren *Irakasbidean* oinarritutako saioa ematen hasi zen, euskara irakasteko. Arrakasta itzela izan zen. Hirugarren egunerako, liburuaren 2.000 aleko argitaraldia agortuta zegoen.


EUSKAL-IRAKASBIDE LABURRA

Izan ere, *Euskal-Irakasbide Laburra* lana *best-seller* izan zen nolabait, bere mailan. Arteako Abertzaletasunaren Agiritegian jasota dauden Peñaren paperetan, berak zerrendatuta dauzka liburu honen argitaraldi guztiak: 1958tik 1980ra bitartean, hamahiru. Aipaturiko «Euskara irakasten» idatzian (1977) esaten du liburuaren eska-riak izan dituela hainbat tokitatik: Japonia, Ipar Amerika, Venezuela, Argentina, Gales, Finlandia... baita Zeilandik ere. Eta argitzen du nolatan osatu zuen liburu hori: hamar urtez klaseak ematen aritu ondoren ikasleek egin zioten opariari erantzuteko,

«udara oso batez ekin nion lanari, orain ogei urte dala». Liburuaren eskaintzak hala dio: «Euskera irakatsi zenidaten guraso maite-maiteoi eta Bilbon ikasle zintzo izan zaituedan guztioi».

Pili Ziarrustak kontatzen du pasadizo bat liburuari buruz. Nola 1.º maila jartzen zuen eta lau ikasturtetan berbera erabiltzen zuten, ikasleek galdetzen ziotela Xabierri: eta noizko bigarrena? Hark erantzun: hori, zuek, gazteek!

Irakasbideak nafarrerako aldaera ere izan zuen. Peñaren lagun zen Inozentzio Aierbek, Aralargo San Migeleko apaizak, kaleratu zuen 1984an.




Euskal Irakasbide Laburra izan zituen argitaraldietako bi, bigarrena Inozentzio Aierbek nafarrerara egokitua



Ikasleek 1959an oparitu zioten agiria

Beste argitalpen batean ere agertzen da Xabier Peña, hain zuzen ere Jose Antonio Montiano eta Jose Ramon Urkijok prestatutako *Ikas* poltsikoko hiztegian (1972), Karmelo Etxenagusiarekin batera, aholkulari.

Kili-Kili aldizkarian Jose Antonio Retolazaren laguntzaile izan zen, eta *Karmel* eta *Izaskun* aldizkarietan kolaboratu zuen. *Euzko Deyan* eta *Alderdin* «Euzkotarren ikur-rin gurutzpidun aintzagarrijari» argitaratu zuen 1947an eta 1948an, hurrenez hurren,



Gea izengoitia erabiliz. *G.E.A.*-k sinaturik, bi poema ageri dira *Euzko Gogoan* 1952an, «Begoña'ko Ama Neskutz Bizkaitarren Zaindariari» eta «Xabiartar Prantzeska Deunari». *G.E.A.* hori eta *Gea* bat ote?

Iturriza izenordearekin sinatu zuen *Ene potxolo* (Bilbo, 1954) komedia musikal laburraren euskararako aldaera. Egilea, *Kantarin* eta musika jarri ziona berriz, Bengoa maisua. Bizkaiera txukunera dago itzulita, sasi-gaztelania xelebretik, alegia, Txomin del Regatoren estilokotik. Liburu-

kiak dio Bilboko Arriaga antzokian estreinatua zuela San Anton Orfeoia, 1952ko otsailaren 24an.

Bere izenez *Abere alaiak* (1969) haurrentzako ipuin sorta argitaratu zuen Peñak, eta Kilimanjaro mendira egindako bidaiaren ondoren, *Afrika-Sorkaldean ibilladibat* (1975).

BIDAIARIA

Peña Albizutarren etxean, Izaskunek gordezten dituen argazkien artean, bidaietakoak dira asko. Familia osoa izan da bidaiazalea. Jaime Guenagak berriz, Xabierrek irteera horietatik bidalitako zen-



Claire, Belgikako laguna, eta Kirsti, Finlandiakoa

bait postal dauzka gordeta. 1966an Suitzatik, Zermattetik idazten dio, Mont Blanc igo dutela esanez. 1968an Bilbotik Lisboarako itsas bidaldia egin zuen M. Jesus eta Izaskun arrebeekin eta Claire lagun belgikarrarekin. 1972an Rovaniemitik, Finlandiatik, idazten du, eta hiru urtera Nairorbitik, Kilimanjaro igo dutela kontatuz. Belgikan izan zen Xeberekin, Erroman Antonio M. Labaienekin, 1980ko urtarrilean Kanariar Uharteetan...

Mendiaren aitzakian ez bada —eta hor beti Xebe gidari—, familiarrean edo lagunak bisitatzera egindako bidaiak dira sarri.



Eta lagunen artean, ezin aipatu gabe utzi Kirsti Kalliosolo, Helsinkikoa, Xabierrek euskaldundua. «Amabi urte dira —idazten dio Kirstik 1974an— Euskaltzaindira euskera irakaslearen billa joan nintzala.» Handik ezagutu zuten elkar, eta betirako lagun egin. Goiazko baserri batean hilabete pasatu zuen Kirstik bere ama eta Maia eta Junik seme-alabekin euskara jorratzen. Ordainetan, Suomin izan zen Xabier.

Kanporako bidaiez gain, Peñak urtero udan astebete pasatu ohi zuen Aralarren, Igaratzen hasieran, San Migelen azken urteetan, non topatzen zuen Inozentzio Aierbe apaiz euskaltzalea.

Ibiletako batzuk, hemengoak nahiz kanpokoak, filmatu izan zituen Xabierrek super-8 kameraz. Euskadiko Filmategian



Igaratzen, arrebeekin



Xebe Peñaren argazki ezaguna: Aralarren, San Migelen irudia daramala

dago material hori, gainerakoa —idatziak, diapositibak, grabazioak eta abar— Artean kokaturiko Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian dagoen bezala.





Maitatua eta eskertua

1974ko omenaldiko plaka, alboan
ikasleen sinadurak dituela

OMENALDIAK

Pizkundeko errautsak berpiztuta, Tolosak bere kulturgileei omenaldia egin zien 1977ko urtarrilaren 23an. Hogei-ta bat izen ageri dira zerrenda nagusian, hasi Ixaka Lopez Mendizabalekin, eta Antonio Zabalarenganaino, tartean Xabier Peña Albizu. Gainera merezi-menduzko aipamenak ere egin zitzaizkien arloka, letretan, pinturan, musikan eta abar nabarmendutako beste hogei-ta hamasei tolosarri. Izan ere, lehengo lepotik burua, Tolosak kultur bizitza oparoa izaten jarraitu du, eta giro horretatik jende ugari bideratu da kultur-gintzara.

Dena den, herritarren gorazarre kolektibo hori baino lehen, Xabier Peñak bere ikasle izandakoen omenaldi betea jaso zuen 1974ko apirilaren 28an, Arantzazun. Aitzakia, 25 urte zeramatzala Bilbon euskara irakasten. Hala idatzi zioten oparitutako zilarrezko plakan: «1949 1974 Euskera bidez Aberri gogoaren zabaltzalle Peña Xabier'i, Beraren ikasleak». Laurehun lagun bildu ziren ospakizunera. Meza, kriptan, Plentziako Aita Amezuak emanda. Balendin Enbeita bertsotan, mezetan eta bazkarian. Hospederiako jangela bete, mahaiburuan eseri zituen lagun zaharrak—Antonio M. Labaien eta Nemesio Etxaniz alde banatan— eta hiru ikasle: Emille eta M. Angeles Garai eta Jaime Guenaga.

Josu Arenazak *Agur* aldizkarian idatzitako kronikan dioenez, Julene Azpeitia, Gabirel Manterola, Juan Garmendia *Zelata*, Oleaga eta Olazar izan ziren, besteak beste, Arantzazun. Omenaldia zela-eta jaso zituen gutun ugarien artean, Aita Villasante euskaltzainburuarena, Txillardegik Hendaiatik bidalitakoa eta, Baionatik, Andoni Urrestarazu *Umandik*.

PEDAGOGOA ETA LAGUNA

Xabier Peñak esker oneko ikasleak izan ditu beti. 1959an iada gorazarre egin zioten, Bilbon euskara irakasten hamar urte zeramatzalako, «larru-paper dotore eta ongi apaindu batean guztien firmak eskeinirik», *Euskera* aldizkarian jasota dagoen bezala. Arantzazukoa, hogeita bosgarren urtekoa ez ezik, bere bizitzako omenaldia izan zen. Eta ez konplimenduzkoa, bihotz-bihotzekoa baizik, bere ikasle izandakoez gaur egun ere adierazten dutenarengatik.

Hasteko, pedagogo ona behar zuen izan. Txaro Boschek (*Berria*, 2007-03-23), «Primerako maisua geneukan: Xabier Peña. Fenomeno bat zen hura». Pili Ziarrus-




Arantzazuko omenaldia, 1974. Xabier erdian, ezkerrera Emille Garai eta Antonio M. Labaien dituela; eskuinean Nemesio Etxaniz eta M. Angeles Garai

tak, «hirugarren mailara sartu eta nerezat burua zabaltzea izan zen hura». Eta pedagogoaz gain, jendea erakartzen zekiena. Garaitarrek: «Apala, lagunen laguna, laguntzaile izugarria, langilerik egon bada...» eta «emakumeentzat xarma handia zeukan». Bide beretik jotzen du Xabier Gereñok: «Ezkongabea geratu bazen ere, horrek ez du esan nahi andreen artean xarmarik ez zuenik. Beharbada, emakumeek, beraiek duten zentzu berezi horrekin, konturatu ziren Xabier Peñaren izaera xarmangarri hartaz eta Xabierren ekintza guztietan, beti aurkituko dugu emakume bat inguruan».

USTEKABEA

1980ko udan Suitzian izan ziren Xabier eta Xebe. Irailean, Besaiden, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak bat egiten duten puntu ho-



rretan, hildako mendizaleei urtero egiten zaien omenaldian, oroigarri bat banatu zen, eta bertan Xabier Peñak euskaratutako testua. Aseguruetakoko enplegutik erretiroa hartu berri, euskalgintzarako are eta denbora gehiago izango zuela pentsa zitekeen.

San Migel bezperetan, Xebe eta Xabier Bilbotik Tolosara joan ziren, Xabier gidari, beti bezala, bere Renault-6an. Hurrengo egunean, irailak 28-igandea, Itziarren ospatzekoa zen Alderdi Egunera joateko asmotan zen Xabier, urtero egin ohi zuen bezala, baina ondoezik jarri zen eguerdian, konortea galtzeraino. Jon Ander Arrue sendagileari deitu zioten, eta hark berehala Donostiako Ospitalera eramatea erabaki zuen. Arantxa Sorronek, umetatik Peña Albizutarren etxeko izan denak, orduan jakin zuen, medikuak esanda, Xabier oso gaixo zegoela, leuzemiarekin. Familiakoen artean, Xebek bakarrik zekien gaitzaren berri. Bi anaien arteko sekretua zen. Urriaren 1ean, Ospitalean hil zen Xabier Peña, 66 urterekin.

Ustekabeari samina jarraitu zitzaion. Eta samina poemetan isuri zuten haren lagun ugarietako batzuek.

Gipuzkoatik etorri ziñan
Bizkai eder onetara,
zure izate zoragarria
eralduz Bizkai erara;
leen burua, gero biotza,
biur zenduzan Bilbora,
oso-osorik, urtuz bizia
Bizkaitar anai gogora.

Paulin Solozabal

Nerbion ertzetako ke ta laiño artean
Itxasorañoko kai luzearen lantegizko
ekiñal ta, urduritasun etengabe...
uriaren urbidezko eta merkatalgozko
artu-emonari begira ez ete zagoz
ikusiz, zeure lan ta ametsen Bilboa,
munduko zorabioan, bizi ala galdukoz,
zeure euskal bide-gurutzearen ibilgoa?

Sabin Muniategi

Tolosako hilerrian, familiako hilobian, lurperatu zuten Xabier. Xebek mendira loturik jarraitu zuen, eta oraindik izan zuen astia bere izeneko Fundazio bat sortzeko, Tolosako Zahar Etxean daudenei laguntzeko helburuarekin.

Xabierrek bere aldetik utzitako ondarea, Bilboko euskal hiztunen ibaian topatu behar da.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzogatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Izaskun Peña Albizuri
- M. Angeles eta Emille Garairi
- Jaime Guenagari eta Pili Ziarrustari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2008ko urria

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Grafo, S.A.
Avd. Cervantes, 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)

ISBN: 978-84-457-2760-7 (Lan osoarena)
978-84-457-2763-8

L.G.: BI - 2924-08

BIDOGILIEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Salburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco